

» TELEGRAMA

Kurt Cobain Nirvanako abeslariari buruz dena dakizula uste duzu? Basauriko Social antzokian proiektatuko duten **Kurt Cobain: montage of heck** dokumentalak harritu egingo zaitu agian. Maiatzaren 19an, 19:30ean edo 22:00etan **STOP Las Kasettes** eta **Bitkitures** taldeek maiatzaren 13an **Hondarribiko Psilocybenean** eskainiko duten kontzertuarekin ondo pasatzea ziurtatuta dago: 22:00etatik aurrera, 5 euroren truke **STOP** Urdiñarbeko **Musikaren Eguna** programa bete-beteta dator: maiatzaren 13tik 15era antzezlanak, kantu txapelketa, Jupiter Jon eta Izaki Gardenak taldeen kontzertua... **STOP**

» DISKOA

Irla, natura eta senaren indarra



Iker Barandiaran



Santa Rosa
CAPSULA

Bonberenea Ekintzak, 2016

Capsula talde bilbotar-argentinarra ezaguna da orriotan, eta oro har, Euskal Herriko eta kanpoko rock eszenan. Musikarako bizi dira (ez da hain justu musikari esker bizitzea), kategoriazko diskoak eta zuzenekoak egiten dituzte eta bi hamarkada luzetan ahal izan duten leku guztietan jo dute. Asko dira ibilbide horretan egindako lorpenak: horien artean, nabarmenenak Austingo (AEB) SXSW jaialdi entzutetsuan urtero parte hartzeko plaza lortu izana, Bowieren eskuineko beso den Tony Viscontirekin grabatu izana eta Ziggy Stardusten omenezko luxuzko emanaldia hainbat alditan gauzatu izana. Aurten, baina, albiste dira beste bi arrazoiengatik: bata, Pearl Jam taldeak Argentinako emanaldi bakarrerako kontzertua egiten gonbidatzea; eta hamaikagarren diskoa, *Santa Rosa*, argitaratu izana.

Iaz argitaratuko *Dead or alive* zuzenekoaren ostean, kantu berriekekin datoz Martin, Coni eta Guantxe; azken hau donostiarra eta Teen Dogs, Señor No, Lobo Electrico eta Inoren Ero Ni taldeetan ibilitako bateria jotzaile puntakoa.

Honako diskoak badu betiko Capsulatik (rock bizia, garagea, psikodelia...); ekoizle mitikoei atsedean eman eta Bilbon taldeak duen Silver Recordings estudioan kantuak grabatu eta nahastu dituzte, Martin L. Gue-

vara taldekideak ekoizle lanak eginez, eta emaitza Eduardo Bergallok masterizatu du Puro Masteringen, Argentinan.

Funtsean 70eko hamarkadako ukitu txikiagoa du: *Dirty ratek* Hendrix eta Beasts Of Bourbon soul-arekin mozkortu ditu, oso itsaskorra da. *Candle candle* zamalkada post-rockeroaren eraginez misterioitsuagoa bilakatzen da. *No contestas* piezak garage-punk taldeen soinua du eta surf ilun eta gizatarrenean murgiltzen da Dead Kennedys edo Niños con Bombasen mehatxupean. *Tierra girando* ere Jello Biafraren eraginpean dago, baina elektro oso ilun, intentsu eta inguratzaile mudatzen doa. *Hikikomori* rock gogorra da, petacoko glama, ia pub-rockeroa. *Santa Rosaren* ukitu hippieak iruzur egiten digu, kantuak urakaren begira eramaten gaituelako. *Dali's face* Cramps, B52's eta Dead Kennedys purua da, iluna, lehergarria eta dantzagarria. *Moving mutant* pop, psikodelia eta rock klasikoa da. *Past lives* kantuak Dylan distiratsuenarengandik edaten du Flying Nunen lainoek harrapatu artean. *Burning heartsek* taupada latinoak du eta garage autentikoenaren arrasto eta irakindaldia. *Everything you want* new wave da, eta baita estadio-rocka ere, hit! bat. *They are new models* garage-punk-rock potentia da eta, gainera, itsaskorra. *You're part of the sun* bukaera gabeko kiribila. Eta CDan bonus track gisa, Delirium Tremensen *Ikusi eta ikasi* hirukoteak lehen aldiz euskarari helduz. ■

Capsula hirukote argentinar-bilbotarra.

